




Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

2021-2022 IKASTURTEKO KUDEAKETA TXOSTENA ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA





Aurkibidea

1. Azpiegiturak eta baliabideak	3
2. Garapen akademikoa eta ikerketa-garapena	5
3. Esperientzia Gelak.....	8
4. Hizkuntza-garapena	12
5. Ekintzailtza eta laneratzea	15
6. Kalitate-, prebentzio- eta ingurumen-programak.....	19
7. Unibertsitate-hedakuntza	20

** COVID-19aren pandemiak sortutako osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz, 2021-22 ikasturterako programatutako jarduera batzuk atzeratu, eten edo online formatu batera egokitu behar izan dira.*

1. Azpiegiturak eta baliabideak

1.1 Plangintza eta Azpiegituren Gerenteordetzarekin elkarlanean, UPV/EHUko eraikinetako azpiegituren plana ezartzea. Plan horretan jasoko dira eraikin bakoitzak bere jarduerak garatzeko behar dituen berrikuntzak, erabiltzaileen instalazioetako segurtasunera bideratutako neurriak eta mugikortasuna hobetzera bideratutako neurriak. Lehentasuna emango zaio prebentziozko mantentzeari.

UPV/EHUko eraikin bakoitzean datozen urteetan egin beharreko jarduerak biltzen dituen azterlana egin da, horien mantentze egokia bermatzeko eta indarrean dagoen araudiari egokitzeko (irisgarritasuna, instalazioak, segurtasuna, jasangarritasuna...).

1.2 Erreformatze, hobetze eta egokitzeko esku-hartzeen plana ikastegietan gauzatzea.

Arabako campuseko eraikinetan zenbait lokal eraberritzeko 52/21 PA dela eta, 2021eko ekitaldiko azken hiruhilekoan hainbat jarduketa egin dira zenbait ikastegitako (Hezkuntza eta Kirol Fakultatea – Hezkuntza, Ingeniaritza Eskola, Farmazia Fakultatea, Letren Fakultatea, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea) gela, laborategi eta zirkulazio-eremuetan baldintza akustikoak, argiztapena eta abar hobetzeko.

Hezkuntza eta Kirol Fakultatean (Hezkuntzan), Ingeniaritza Eskolan, Farmazia Fakultatean, Elurreta Gelategian, Lascaray Ikergunean eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean hainbat gune eraberritzeko, egokitzeko eta hobetzeko exekuzio-proiektua idatzi da. Obrak lizitatu ondoren, proiektu horren arabera garatuko diren jarduketek honako hobekuntzok ekarriko dituzte:

- Ikasgeletako eta irakaskuntza-laborategietako baldintza akustikoak eta konpartimentazio-baldintzak hobetzea, bai eta bulego eta bestelako espazioetakoak ere.
- Argiztapen-instalazioak hobetzea, ingurumena eta Eraikuntzako Kode Teknikoak eskatzen dituen argiztapen-mailen baldintzak gehiago errespetatzen duen beste argiteria mota bat jarriz; larrialdietako argiak

egokitzea, argiztapenaren, energia-eraginkortasunaren eta eraikinen ebakuazioko barne-ibilbideak erabiltzeko segurtasunaren baldintzak betetzen dituzten luminaria berriak instalatuz; eta eremu komunen eta korridoreen argiztapena kontrolatzeko egokitzapenak egitea.

- Espazio batzuetako klimatizazio- eta aireztapen-instalazioak berritzea, fancoil eta VMC ekipoen ordeztasun termikoa eta airearen berriztapena bermatuko duten beste batzuk jarriz, ingurumen-eraginkortasun handiagokoak eta EK Tk eta RITEk eskatutako baldintzekin bat datozenak.

Era berean, fabrika-obrak egiteko proiektua idatzi da, Ingeniaritza Eskolako eraikineko salgaien eta abarren sarbidea hobetzeko, Letren Fakultateko barneko klaustroko adreilu karabistazko fabrika-oihalak konpontzeko, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko gela batean zoladura berria jartzeko eta Farmazia Fakultateko Kimika Analitikoa Sailaren gunea eta 1A9 informatika-gela birbanatzeko. Obrak 2022ko azken hiruhilekoan egitea aurreikusten da.

Lascaray Ikerlagunearen, Letren Fakultatearen eta Farmazia Fakultatearen estalkiak berritzeko proiektuak idatzi dira.

Farmazia Fakultateko eta Ingeniaritza Eskolako laborategietan dauden Bunsen metxeroen egoera berrikusi da, eta Prebentzio Zerbitzuak emandako jarraibideen arabera araudiari egokitzeko dagozkion hobekuntza-jarduketak egin dira: gas-hartuneak deuseztatzea, gas-txorrotak aldatzea eta metxero berriak erostea.

Campuseko eraikin nagusietako ate automatikoen berrikuspen- eta mantentze-lanak egin dira, irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

Aireztapen-instalazio berri bat jarri da Errektoreordetzako Prebentzio Zerbitzuaren gunean.

Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen (Kirol atala) kanpoko hodia egokitu da, galera termikoak murrizteko.

Igeltserotza-, arotzeria- eta iturgintza-lanak egin dira, eraikinak behar bezala mantentzeko.

Pintatze-lanak egin dira campuseko hainbat eraikinetan.

2. Garapen akademikoa eta ikerketa-garapena

2.1. Ikastegiak bisitatzeko eta haiekin biltzeko programa bat garatzea, zuzendaritza-taldeei kudeaketa lanean laguntzeko.

Ikasturtean zehar bilerak egin dira campuseko ikastegi guztietako zuzendaritza-taldeekin.

Uztailean 2021-22 ikasturtearen amaierako bilera bat egin da ikastegietako dekanok eta zuzendari guztiekin.

2.2. Ikastegiei campusetako eskaintza akademikoa areagotzeko egindako ekimenak bultzatu eta babestea.

Gasteizko Ingeniaritza Eskolak gradu bikoitz berri bat eskainiko du 2022-23 ikasturtean: Ingeniaritza Mekanikoa + Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza.

2.3. Ikastegiak eta campuseko unibertsitate-enpresa ikasgelen sorrera babestea.

Bilerak egin dira zenbait enpresa eta elkargorekin unibertsitate-enpresa ikasgelak sortzea proposatzeko.

2.4. GJHen inguruan egindako ikerketak eta prestakuntza nabarmentzea.

UPV/EHUren eta Vital Fundazioaren arteko ikerketa-proiektuetarako 2021eko deialdiaren baitan, Arabako campuseko ikerketa-taldeek aurkeztutako 13 proiekturi diru-laguntza eman zaie.

Udako ikastaro berri bat antolatu da Arabako campusean: "Medikamentuen ingurumen-inpaktua".

2.5. Komunikazio zientifikoko programa babestea, zenbait egitura eta ekitaldiren bidez.

Zientzia eta Gizarte Garapeneko eta Transferentziako Errektoreordetzarekin elkarlanean aritu gara Zientzia Astea 2021 antolatzeko. Azaroaren 3tik 7ra egin da, eta edizio honetan jarduera guztien presentzialtasunera itzuli da, txokoena izan ezik. Guztira 59 jarduera egin dira, eta 723 pertsonak parte hartu dute.

2.6. Irakasle eta ikertzaileen gaitasunak eta kualifikazioa hobetzeko jarduerak garatzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan.

Arabako campusean irakasle eta ikertzaileen eta graduondoko ikasleen beharrizan espezifikokoak eta zeharkakoak bete daitezten bideratutako "Ikerketari Laguntzeko Mintegi Iraunkorra" izeneko deialdiaren esparruan, prestakuntza eskaini da IRIn gaitasunak hobetzera bideratuta.

2021-22 ikasturtean 7 ikastaro antolatu dira, eta guztira 322 pertsonak hartu dute parte (168 emakume eta 154 gizon). Hona hemen ikastaroak:

- Digitalizazioa eta historia. Ikerketa historikoa garatzeko baliabide bibliografikoak eta artxibistikoak.
- Iraultzen Historia (XVI.-XIX. mendeak). Metodologia-, teoria- eta kontzeptu-gaiak/L'Histoire des Révolutions (XVIe-XIXe siècles). Enjeux méthodologiques, théoriques et conceptuels.
- Galde-sorten diseinuari, baliozkotzeari eta azterketari buruzko ikastaroa SPSSrekin.
- Curriculum zientifikoa zabaltzea eta ebaluatzea: seiurtekoen deialdia.
- Datuen analisi eta modelatze interaktiboa MS Power Business Intelligence Desktop (Power Query eta DAX lengoaia) erabiliz.
- Gogoeta Jardunaldia 22M08 «Kultur Ondareari begirada berriak». Ikerketa historiko inklusibo baterako/4^a jornada reflexiva 8M22 - Nuevas mirada al legado cultural. Ikerketa feministak kontakizun historiko inklusibo baterako.
- SPSS duten galdetegietatik eratorritako datuen analisisa.

2.7. Prestakuntza-eskaintzaren, programa osagarrien eta bestelako jardueren komunikazioa babestea.

Campuseko ikastegiei eta UPV/EHUko errektoreordetzei laguntza eman zaie prestakuntza-eskaintza arautua (graduako eta graduondoko titulazio berriak) nahiz prestakuntza osagarria zabaltzeko, bai eta unibertsitate-komunitateari zuzendutako jarduerara guztiak hedatzeko ere.

Campuseko Ikasleen Ordezkarien I. Topaketa antolatu da, Campuseko Errektoreordetzak eskainitako jarduerara-eskaintza helaraztea helburu duena.

2.8. Unibertsitate aurreko ikasleei zuzendutako jarduerak antolatzea, gaitasun zientifiko-teknikoak gara ditzaten.

Pandemia dela eta, ez da antolatu AGORA Teknocamp udako campus teknologikoa. Jarduera hori Arabako Foru Aldundiarekin, Egibiderekkin, Ikaslan Arabarekin eta Innobasquerekin elkarlanean egin da azken urteotan.

2.9. UPV/EHUren Udako Ikastaroak Fundazioarekin koordinatu, Arabako lurralde historikoan egiten diren ikastaroetarako.

Aurten, UPV/EHUren Udako Ikastaroen 41. edizioaren barruan, Arabako campusean sei ikastaro antolatzen lagundu da:

- 4.0 enpresa: digitalizazioa eta informazioaren teknologiak, enpresa-lehiakortasunaren iturri gisa. Ekainak 16 eta 17.
- Hiri-paisaia historikoaren 2030 erroka. Ekainak 20 eta 21.
- Hiri hezitzailea: eskola-patioak naturalizatzea. Ekainak 28 eta 29.
- Medikamentuen ingurumen-inpaktua. Ekainak 30 eta uztailak 1.
- UPV/EHUko Valentín de Foronda Gizarte Historiako Institutuaren XXVIII. Sinposioa. "Zenbat irauten du iraganak? Historiaren gertakariei buruzko egungo erantzukizunak". Uztailak 7 eta 8.
- Vitoria-Gasteizko 2022ko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak. Uztailaren 11tik 15era.

Gainera, Donostiako Miramar Jauregian udako ikastaroen irekiera-ekitaldian izan gara, bai eta campusean egindako ikastaroen inaugurazio-jardunaldietan ere.

2.10. Lurralde Historikoko eta EAEko erakunde publikoekin, eragile sozioekonomikoekin eta erreferentziazko kanpo-erakundeekin (Eustat, Emakunde, Arartekoa, Osakidetza, etab.) harremanak estutzea eta lankidetzan aritzea, praktikak, GRAL, MAL, doktorego-tesiak eta abar egiteko lankidetzak-hitzarmenak formalizatzeko eta zerbitzuak kontratatzeke.

Gasteizko Udalak New European Bauhaus deialdira aurkeztu duen "ENSANCHE Entrepreneur Creative Quartier" proiektuaren partaidea da Arabako Campusa beste zenbait eragile sozial eta profesionalekin.

Gasteizko Udalaren "Vitoria-Gasteiz 2030 hiri-agenda" diseinatzeko focus group batean parte hartu dugu, beste zenbait eragile sozioekonomikorekin batera.

Gasteizko Udaleko Industria Mahaiak antolatutako saioretan parte hartu dugu, Arabako Campusaren ikuspegia txertatzeko eta balizko lankidetzak-bideak aztertzeke.

3. Esperientzia Gelak

3.1. Giza Zientzien titulazioaren irakaskuntza antolatzea.

Giza Zientzien titulazioa antolatu da, lau urteko iraupena duena, enborreko 18 irakasgairekin eta hautazko 20 irakasgairekin. 2021-22 ikasturtean, edukiera murriztuarekin eta zenbait taldetan presentzialtasun egokituaren modalitatean eman dira eskolak, murrizketa-neurriak malgutu diren arte.

3.2. Adinekoentzako Unibertsitate Ikastaroak (AUI) eta ikastaro osagarriak planifikatu eta garatzea.

AUI ikastaroak egin dira, tituluarekin partekatzen diren hautazko irakasgaiekin eta Historiako, Artearen Historiako eta Geografia eta Lurralde Antolaketako graduen irakaskuntza arautuko planetako irakasgaiekin. Azken eskaintza

akademiko hori 2021-22 ikasturtean berrartu da, pandemiaren aldi baterako etenaldiaren ondoren. Arabako campuseko ikastegiekin lankidetzan, eskaintza akademiko berri bat landu da 2022-23 ikasturterako, lehenengo aldiz, fakultate guztietako eskaintza arautuko irakasgaiak izango dituen.

Bestalde, zazpi ikastaro osagarri eskaini dira, irakasle espezializatuek emanda.

3.3. Esperientzia Geletako ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen arlo akademikoaz kanpoko jarduerak antolatzea.

Irailaren 23an eta 24an harrera-jardunaldiak egin dira 1. mailako ikasleentzat. Horietan, titulazioari buruzko informazioa jaso dute eta UPV/EHUren webgunearen eta beste erreminta batzuen (GAUR, Egela) erabilerari buruzko tailer bat egin dute.

Esperientzia Gelak zabaltzeko eta komunikatzeko ekintzak egin dira matrikulazioa sustatzeko eta proiektuaren ikusgarritasuna sustatzeko: hainbat elkarrizketa egin dira prentsa idatzian (*Senior Class* eta *El Correo*), irratian (Radio Vitoria) eta iragarki bat argitaratu da *El Correo de Álava* egunkarian. UPV/EHUko komunikazio-bulegoarekin lankidetzan, Esperientzia Gelen irudi korporatiboa eguneratzen jarraitu da (kartelak eta informazio-triptikoak, proiektua aurkezteko bideo berria eta webgunea).

Hainbat jarduera osagarri egin dira irakasgaien programak osatzeko eta testuinguruan kokatzeko (hitzaldiak, museoetara bisitak, kultura-ibilbideak, teatorako irakurketak, etab.). Ekintza horiek guztiek zabaldu egin dute Esperientzia Geletan eskainitako prestakuntza, eta motibazio erantsia eman diete ikasleei.

Esperientzia Gelen VIII. Jardunaldiak antolatu dira: "Miradas de Biodiversidad - Bioaniztasun Begirada" izenburupean. Bi egun horietan, ikuspegi eta ikerketa-eremu ezberdinetatik biodibertsitatera hurbiltzea izan da helburu nagusia, betiere diziplina anitzeko eta zeharkako hausnarketa ahalbidetzeko nahian. Urtean behin antolatzen diren jardunaldi hauek Letren Fakultateko Areto Nagusian egin dira, urtarrilaren 26 eta 27an, eta guztira 4 hitzaldi antolatu dira.

Arabako Campuseko Esperientzia Gelen graduazio-ekitaldia —Giza Zientzietako tituludunen XVI., XVII. eta XVIII. promozioak— eta 20. urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatu dira.

3.4. *Esperientzia geletako Ikasleen eta Ikasle ohien Kultur Elkarteari (ACAEXA-AEIKE) jarduerak antolatzen laguntzea.*

Lankidetzaren estuko harremana sustatu izan da ACAEXA-AEIKE elkartearekin, eta, lehenengo aldiz, hitzaldi-ziklo bat antolatu da. Hilean behin egin diren hitzaldi hauek, unibertsitate-komunitate osoari eta herritarrei irekiak, Letren Fakultateko Areto Nagusian egin dira; guztira, halako 7 hitzaldi antolatu dira.

3.5. *Lankidetzan jardutea Helduentzako Unibertsitate Programen Espainiako Elkartearekin (AEPUM).*

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak AEPUMeko kide izateko proposamena onartu du, eta, aurtengo irailean, behin betiko onetsi da elkartearen batzarrean. Elkarte horretan parte hartu ahal izatea aukera estrategikoa da Esperientzia Gelen proiektua estatu mailan garatzeko.

3.6. *Ikasleek egindako La voz de la experiencia / Esperientziaren Ahotsa seihilabetekaria prestatu eta zabaltzea.*

La Voz de la Experiencia seihilabetekariaren 36. eta 37. zenbakiak argitaratu dira, eta EAEko hainbat erakundetara zabaldu da.

3.7. *Lankidetzan aritzea UPV/EHUko sail eta ikastegiekin, eta beste erakunde eta elkarte batzuekin, unibertsitateko gainerako ikasleentzat eta/edo hiritarrek parte hartzeko moduko jarduerak antolatzeko eta eskaintzeko.*

Ikasturtean zehar, lankidetzaren aktiboa izan da Esperientzia Gelen programan parte hartzen duten sailekin, bai eta beste erakunde eta elkarte batzuekin ere, Esperientzia Gelen programan 55 urtetik gorako unibertsitate-komunitaterako bereziki interesgarriak diren jarduerak osagarriak egiteko.

Lankidetzan jardun da UPV/EHUko Artearen eta Musikaren Historia Sailarekin, Arabarrak Arte Erromanikoarekin Elkartearekin, Kalearte Kultur Elkartearekin

eta Gasteizko Teologia Fakultatearekin, Arte Erromanikoari buruzko V. Jardunaldiak, "El Arte Románico al servicio de las peregrinaciones" izenekoak, antolatzeko. Jardunaldiak lau hitzaldiren inguruan egituratu dira. Hitzaldi horiek 2022ko urtarrilaren 19an, otsailaren 16an, martxoaren 16an eta martxoaren 30ean egin dira, Letren Fakultateko Areto Nagusian.

ABAOren prestakuntza-programarekiko lankidetzari berriro ekin zaio, eta 21/22 denboraldiko lau operatara bertaratzea antolatu da. Emanaldi guztien aurretik, operaren testuinguruari buruzko hitzaldi bat izan da beti, Esperientzia Geletako irakasleek emana.

Lankidetzan jardun da UPV/EHUko Filologia eta Historia Sailarekin "Italiar Zinemaren I. astea" antolatzeko. Ziklo honetan italiar zinemaren aldi gorenen errepresentazioa diren 5 film proiektatu dira jatorrizko bertsioan. Proiektzioak Letren Fakultateko Areto Nagusian izan dira eta solasaldi bat izan dute, UPV/EHUko hainbat irakaslek gidatuta, kritikarako eta hausnarketarako gune bat sortzeko.

3.8. Elkarrekiko informazio-harremanak sortzea Arabako Foru Aldundiaren +55 ikasgeletako, Vital Fundazioko (+55 jarduerak) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren BIZAN sareko (adinakoentzako zentro soziokulturalak) jarduera eskaintzaren inguruan.

Esperientzia Gelen jardueren berri eman da Gasteizko BIZAN sarean (adinekoentzako zentro soziokulturaletan), Vital Fundazioan eta Arabako Foru Aldundiaren +55 geletan. Gainera, erakunde horiek antolatzen dituzten jardueren berri eman zaie Esperientzia Geletako ikasleei.

3.9. Hiru campusetako Esperientzia Geletako proiektuaren orainari eta etorkizunari buruz hausnartzea, modu koordinatuan.

UPV/EHUko hiru campusetako Esperientzia Geletako zuzendaritzek, Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzako Errektoreordetzarekin batera, hausnarketa-prozesu bat hasi dute UPV/EHUko programaren etorkizuneko estrategiei eta prestakuntza-eskaintzari buruz.

4. Hizkuntza-garapena

Atal honetako jarduera guztiak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzarekin eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Campusetako Euskara Zuzendaritzekin elkarlanean egin dira.

4.1. Arabako campusean Euskararen III. Plan Gidaria (2018-2022) garatzen jarraitzea.

Euskararen Plan Gidariaren ardatzetako ekimenak gauzatu dira, bereziki, euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketari dagozkionak (4.2. atalean). Halaber, Arabako Campuseko Euskara Batzordeak plan gidarian jasotako helburu batzuen balorazioa egin du, besteak beste, ikastegietako graduetak euskarazko eskaintzari lotutako hizkuntza-ereduen betetze-maila.

4.2. Euskararen erabilera unibertsitateko bizitzaren arlo guztietan areagotzeko jarduerak bultzatzea.

4.2.1 Euskararen Astea antolatzea

Euskararen Astea antolatu da, campuseko ikastegietan sortutako ekimenak koordinatuz eta Euskararen Egunean ekintza espezifikoak antolatuz. Errektoreordetzak antolatutako jardueretan gutxi gorabehera 130 pertsonak parte hartu dute.

4.2.2 Euskararen erabileraren diagnostikoa osatzea Soziolinguistikako Klusterraren laguntzaz.

Gure campusean euskararen erabilera aztertzen jarraitu da, Euskal Soziolinguistika Klusterrarekin lankidetzan; horrela, campuseko hainbat ikastegitako elkarrizketetan gaztelaniaren eta euskararen erabileraren erregistroa aztertu da. Gasteizko Ingeniaritza Eskolara eta Medikuntza Fakultatera bisitak egin dira, baina lehenengoan lortutako laginak bakarrik aztertu ahal izan dira.

4.2 atalaren barnean, beste jarduera hauek ere baditugu:

UPV/EHUK ekonomikoki parte hartu du 2022ko Korrikan eta Arabako Campusa kilometro batean egon da; campuseko bi irakasle arduratu dira lekukoa eramateaz.

Unibertsitate-komunitatearen artean euskararen erabilera sustatzeko Aktibatu deialdia kudeatu da. Araban hiru eskabide aurkeztu eta onartu dira azaroko deialdian, eta bat, maiatzekoan.

Gasteizen Oihaneder Euskararen Etxea kudeatzen duen Lazarraga Kultur Elkartearekin lankidetzan aritu gara, harekin sinatutako hitzarmenaren esparruan, euskararen erabilera sustatzeko bai campusean bai hirian. Hain zuzen ere, Oihaneder Euskararen Etxeak eta UEUK antolatzen duten "Hitz Adina Mintzo" zikloan parte hartu da, Mamiak kolektiboa artista-taldeak sortutako *Ogiak hizketan baleki* antzezlanarekin. Guztira 30 pertsona bertaratu dira Unibertsitate Pabiloian egindako ekitaldira.

Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean aritu gara Euskara eta Kirola programa antolatzeko. Programa horren bidez, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleak hezkuntza-testuinguru ez-formaletan euskara erabiltzearen alde sentsibilizatzea bultzatu da. Guztira 100 ikaslek parte hartu dute gutxi gorabehera, Lehen Hezkuntzako Graduako eta Haur Hezkuntzako Graduako lau taldetan banatuta.

4.3. Eztabaida- eta dibulgazio-foroak bultzatzea, bai eta euskara tekniko-zientifikoa sustatzeko jarduerak ere.

Henrike Knörr beka-deialdia diseinatzen lagundu zaio Arabako Foru Aldundiari; euskararen erabilerari buruzko ikerketa sustatzeko proiektuak saritzen ditu deialdiak. Hiru proiektu aurkeztu dira, eta horietatik bik beka jaso dute.

Euskararen Arloko Errektoreordetzaren irakasle eta ikertzaileen hizkuntza-prestakuntzarako plana antolatzen parte hartu da.

4.4. Euskarazko irakaskuntza materiala egin, egokitu eta zabaltzen laguntzea.

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren 40. urteurrenaren ospakizunetan parte hartu da.

4.5. Unibertsitateko hide bakarreko zein hide anitzeko organoen bileretan euskararen erabilera sustatzea.

Gure campuseko ikastegietako batzordeen bileretan euskararen erabilera sustatzeko eta errazteko ekintzak garatu dira. Zehazki, ikasturte honetan Campuseko Batzarraren bileretan aldibereko itzulpen-zerbitzua erabiltzen jarraitu da, eta campuseko zenbait ikastegitan sistema horretaz baliatzen hasi dira.

4.6. Campuseko unibertsitate-komunitatean atzerriko hizkuntzak ikas daitezen laguntzea.

Ingeleseko hainbat ikastaro eskaini dira, eta partaidetza nahiko orekatua izan da, 10 pertsona ingurukoa bakoitzean, alegia. 2021-22 ikasturteko lehen lauhilekoan ingelesa garatzeko hiru online ikastaro eskaini dira (30 pertsona guztira): Overcoming traps in academic articles, A beginner 's guide into dissertation eta Academic public speaking.

Bigarren lauhilekoan aurrez aurreko 4 ikastaro eta ikastaro bimodal bat egin dira (47 pertsona guztira): A guide into academic papers, Informal academic speaking, Overcoming traps in academic articles 2, English for research eta Ready to Enlight.

Testu zientifikoak berrikusteko tutoretza-zerbitzua ikasturte osoan egon da aktibo eta eskaera gero eta handiagoa izan da. Ikasturte honetan 24 testu berrikusi dira guztira: 8 lehen lauhilekoan, 12 bigarreanean eta 4 ekainean. Testu guztiak banakako tutoretza-saio online baten bidez berrikusi dira, eta lanen bat argitaratu da dagoeneko.

4.7. BIKAIN ziurtagiria eskatzea, Arabako Campuseko Errektoreordetzako euskararen presentzia, erabilera eta hizkuntza-kudeaketa ebaluatzeko.

Bikain ziurtagiria zilarrezko kategorian lortu da, Campuseko Errektoreordetzak euskararen inguruan egindako kudeaketa-lanaren adierazle.

5. Ekintzailtza eta laneratzea

Jarduera hauek Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan egin dira.

5.1. INIZIA ArabaCampus programa garatzea Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin (BIC Araba) lankidetzan, Arabako campusean ekintzailtza eta oinarri zientifiko eta teknologikoko INIZIA enpresa-haztegia bultzatzeko.

Kultura ekintzailearen hedapenaren esparruan, Arabako campuseko INIZIA programa garatzeko hainbat jarduera egin dira, eta 300 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.

5.1.1 Kultura ekintzailea sustatzea eta ikasleen eta irakasle eta ikertzaileen artean zabaltzea ekintzailtzaileen eta enpresa-sorkuntzaileen arloan eskainitako zerbitzuak.

Gasteizko Ingeniaritza Eskolan, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean eta Farmazia Fakultatean "Ikasgeletan Ekiten" proiektua garatu da, ikastegi horietako irakasleekin lankidetzan. Bost ikasgelatako 210 ikaslek hartu dute parte.

UPV/EHUren Gazte Ekintzailtza beken antolaketan eta kudeaketan parte hartu da. Programa honen bidez 25 beka eman dira (horietatik 6 Arabako campusekoak), azken hiru ikasturteetan (2018-19, 2019-20 edo 2020-21) unibertsitate-titulu ofizial bat lortu duten pertsonak edo 2021-22 ikasturtean UPV/EHU graduaren edo masterraren azken ikasturtean matrikulatuta egon direnek garatutako enpresa-ideiak edo -proiektuak laguntzeko.

5.1.2 Ekintzailtzako prestakuntza-jardueren eta unibertsitate-komunitatetik sortzen diren ideia berritzaileak lagundu eta babesteko jardueren eskaintza indartzea.

Ekintzailtzari lotutako gaitasunei buruzko prestakuntza emateko tailerrak eta jardunaldiak egin dira. Arabako campuseko 82 kidek parte hartu dute.

Laguntza eta aholkularitza eskaini zaie Arabako campuseko enpresa-haztegiko ekintzaileei.

Horretarako ezarritako batzordeak orain arte mintegian ezarritako bi enpresen jarraipenaren ebaluazioa egin du. Biek jaso dute beren jarduerari buruzko aldeko txostena. Era berean, beste eskaera baten ebaluazioa egin da, eta hori ere modu positiboan ebatzi da.

5.1.3 Enpresa-ekimenen garapena bultzatzea, sariak emanez eta finantzaketa bilatzen lagunduz.

Arabako campuseko unibertsitate-komunitateari zuzendutako INIZIA 2022 sariak deitu dira. Alde batetik, "Ideia Berritzaileak" kategoria saritu da, enpresa-ekimen berritzaile edo oinarri zientifiko eta teknologikoko enpresa berritzaile bihurtzeko aukera gehien dituzten ekintzailtza-proiektuak saritzeko. Kategoria honetan bi proiektu saritu dira. Gainera, ekintzailtzarekin lotutako GRAL, MAL eta doktorego-tesiak saritzeko kategoria berri bat sartu da, eta hiru proiektu saritu dira.

INIZIA 2022 sarien edizio honetan, campuseko unibertsitate-komunitateko 10 gizonen eta 2 emakumek proposatutako 9 proiektu hartu dute parte.

5.1.4 Araban ekintzailtza sustatzen duten erakunde eta instituzioekin (Araba Ekintzailea) lankidetzan aritzea eta eskaintzen dituzten zerbitzuak ikasleen eta irakasle eta ikertzaileen artean zabaltzea.

Ekintzailtza sustatzeko Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailarekin sinatutako hitzarmenaren esparruan, ekintzailtzari eta jasangarritasunari buruzko online prestakuntza bat egin da

gai horretan GRALak edo MALak egiten ari diren Arabako campuseko ikasleentzat bereziki atondua. 12 pertsonak hartu dute parte.

Araba Ekintzailearen XXI. edizioan parte hartu dugu, ekimen ekintzaileentzako sarien ebaluazio-batzordeko kide gisa eta "Zure ideiak balio du" lehiaketari babesa emanaz.

Lankidetzan jardun dugu BIC Araba erakundearekin, urteko lankidetzahitzarmen espezifikoa sinatuz, ekintzaileak sustatu, aholku eman eta laguntzeko programak egin daitezzen, eta egoitza teknologikoa Arabako campusean duten enpresak sortzeko (INIZIA ArabaCampus programa).

5.1.5 CERN IdeaSquare Workshop "Design the Future" antolatzea BIC Arabarekin eta Ikerketa Nuklearrerako Europako Zentroarekin (CERN) lankidetzan.

Azaroan, bi astez, diziplina anitzeko eta pentsaera ekintzailea duten Arabako campuseko 20 ikaslek (10 emakumek eta 10 gizonek) CERNen (Conseil Européen pour la Recherche Nucléaire) CBI (Challenge Based Innovation) programan parte hartu dute taldeetan, Genevan (Suitza), Nazio Batuen Erakunde Eragileei lotutako proiektu berritzaile bat egiteko helburuarekin.

Proiektua egiteko, hautatutako pertsonak formatu birtualean jaso dute prestakuntza, CERNeko pertsonalaren eskutik. Proiektuak amaituta, dagokion deialdian ezarritako prozedura eta balorazio-irizpideekin bat etorrira, horretarako ezarritako batzordeak proiektuak ebaluatu ditu, eta hobekien baloratutako biek 2.000 euroko sari bana jaso dute. Horrez gain, 1.000 euroko saria banatu da taldeak hobekien baloratutako pertsonen artean (pertsona bat talde bakoitzeko).

5.2. I. Enplegarritasun Plana garatzea.

5.2.1 Campusetako Enplegu Gunei laguntzea, bertan programatzen diren prestakuntza-, orientazio- eta bitartekaritza-ekintzak hedatzen, antolatzen eta garatzen, enplegarritasuna bultzatzeko eta laneratzea sustatzeko.

UPV/EHUko Praktika eta Enplegarritasun Zuzendaritzarekin eta UPV/EHUko Enplegu Guneekin lankidetzan, hainbat ekintza garatu dira Arabako campusean laneratzeari dagokionez, besteak beste:

- “Hezkuntzatik lan-mundurako trantsizioa” programa (Eusko Jaurlaritzaren antolatze eta kudeatzeko lanetan parte hartu da, ikasleek praktikak egin ditzaten enpresa eta erakundeetan, non 600 ikaslek parte hartu duten (Arabako campuseko 110 ikaslek).
- XIV. Erasmus+ Epez ikasle egresatuentzako mugikortasun-programa. Programa horren bidez, UPV/EHUko 40 graduatuk (Arabako campuseko 7k) prestakuntza-praktikak egin dituzte Europako enpresetan.
- “IkaslePraktikak” mugikortasun-programan hartu da parte. Horren bidez, UPV/EHUko gradu, master eta doktoregoko 57 ikaslek (4 Arabako campusekoak) praktikak egin dituzte Europako enpresa eta erakundeetan.

5.2.2 Ikasle graduatuen eta enpresen arteko lan-bitartekaritza sustatu, campuseko ikastegiaren lankidetzaz.

UPV/EHUko Praktika eta Enplegarritasun Zuzendaritzarekin lankidetzan, campuseko ikastegiari laguntza eman zaie borondatezko praktikak kudeatzeko eta GAUR-PRAKTIGES plataforma erabiltzeko. 2021-22 ikasturtean, 756 praktika egin dira campusean.

5.2.3 Enplegu Gune 2022 antolatzea (Vitoria-Gasteizko Enpleguaren Foroa), Vitoria-Gasteizko Udalaren Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorra Sailarekin eta Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailarekin eta Foru Administrazioarekin lankidetzan.

Gasteizko Enplegu Gune Foroaren XII. edizioa Europa Jauregian egin da maiatzaren 5ean. Guztira 1.200 pertsona baino gehiago izan dira edizio honetan, eta orotara 60 enpresak hartu dute parte, horietatik 44k standarekin. 465 lanposturi dagozkien 213 lan-eskaintza kudeatu dira.

6. Kalitate-, prebentzio- eta ingurumen-programak

6.1. *Suteak atzemateko sistemak eta alarmak hobetzea.*

Suteen aurkako ekipoak berriro dira zenbait ikastegitan, iraungitasun-data kontuan hartuta.

Ingeniaritza Eskolako sotoan hobetu egin da suteak antzemateko sistema.

6.2. *Larrialdietako planak eguneratu eta simulakroak antolatu, lanerako zehaztutako egutegiari jarraituz.*

Micaela Portilla eta Lascaray ikerguneen autobabes-planak eguneratu dira.

Aldian-aldian egiten den moduan, campuseko ikastegi eta eraikinetako larrialditaldeen egoera berrikusi da, izendapenak eguneratze aldera.

Ebakuazio-simulakroei dagokienez, pandemia-egoera dela eta, ez da jarduera hori egin 2021-22 ikasturtean. Hala ere, 2022ko ekitaldiko 2. seihilekoan egitea aurreikusi da.

6.3. *Arauzko eta maiztasun jakin bateko ikuskatzeak egitea, eta neurri zuzentzaileak ezartzea, hala badagokio.*

Campuseko hainbat igogailuren aldizkako ikuskapenak egin dira, bai eta behertentsioko koadroen ikuskapenak ere.

Era berean, Lascaray Ikerguneko gas-arakak ikuskatu dira eta eraikin horretako autoklabeen arauzko ikuskapena ere egin da.

6.4. *Dokumentazioa inprimatu ordez, dokumentazio digitalaren erabilera bultzatzea, eta igorpen-tasa txikiagoko garraio publiko osasuntsuaren erabileraren alde egitea.*

Paperaren erabilera murrizteari dagokionez, sinadura digitalaren erabilera ezarri da Campuseko Errektoreordetzaren jardunetik eratorritako dokumentazio osoan, barrura zein kanpora begira.

6.5. Unibertsitate-komunitateko hideoak sentsibilizatzea campusera eta bertako ikastegietara garraiobide publikoetan edo motorrik gabekoetan sar daitezzen.

Jarduerak antolatu dira campusean 2021eko Mugikortasunaren Europako Astearen barruan; zehazki, martxa bat, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean hasita, eta bizikletak konpontzeko tailer bat, Bizikleteroak elkartearen eskutik.

7. Unibertsitate-hedakuntza

7.1. EHUkultura

7.1.1 EHUkultura Araba programa zehaztea eta garatzea, kultura-diziplina ezberdinak aintzat hartuz: literatura-lehiaketak, zinematografikoak eta musikalak, kultura-ikastaroak, liburu-aurkezpenak, erakusketak, antzerkia eta musika-kontzertuak.

Ikasturte erdira arte, edukiera-murrizketek eta ziurgabetasunak zenbait muga sortu dizkigute publikoari zabalik zeuden EHUkultura programako jardueretan. Hala ere, honako jarduera hauek burutu izan dira:

- AUIT elkarteak 5 proposamen eszeniko egin ditu ikasturtean zehar: *Mujeres en la cornisa, Vidas privadas, Teatro del absurdo, Un ligero malestar* eta *Tres sombreros de copa/Ubu rey*.
- Bi erakusketa antolatu dira Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolarekin elkarlanean: "Paisaia deseraikitzen" (urtarrilaren 31tik otsailaren 14ra) eta "Recrea/c)ciones" (martxoaren 1etik 14ra).
- Euskal Mendizaletasun Museoarekin (EMMOA) elkarlanean, erakusketa bat prestatu da: "Euskal mendizaletasunaren historia" (maiatzaren 10etik 26ra).
- Lucky Books Bienalaren barnean, Saure Editorialarekin elkarlanean, solasaldi literario batzuk antolatu dira Ignacio Aldekoa Kulturgunean uztailearen 4tik 8ra. Bertan UPV/EHUko zenbait irakaslek ponente zein moderatzaile lanak egin dituzte.
- IRAGARRI Unibertsitate Elkartearekin lankidetzan jarduera hauek antolatu dira:

- "Kultura aringarri baterantz" ikastaroa, martxoaren 10, 17, 24 eta 31n.
- "Afganistan talibanen altxamendua gertatu eta urtebetera" esperientzia pertsonalen mahaia, apirilaren 5 eta 6an.
- "Eliza eta trantsizio demokratikoa" mahai-ingurua, azaroaren 30ean.
- "Transizioaren balioak eta elizaren eginkizunak", abenduaren 2an.
- Zineforuma: sei emanaldi eta solasaldi bana.

7.1.2 Hiriko eta lurraldeko kultur eragileekin lankidetzak sustatzea eta horrela badagokio hitzarmenak sinatzea.

Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolarekin dagoen hitzarmenaren jarraipena egin da arte-diziplinak antolatu, sustatu eta zabaltzeko. Arabako Foru Aldundiko Kultura Diputatu eta Zuzendariarekin bilerak burutu dira etorkizuneko lankidetzak arakatzeko eta sendotzeko.

7.1.3 UPV/EHUko elkarten jarduerak eta elkarte berrien eraketa sustatzea, EHUkulturaren organigramari atxiki dakizkion.

Ikasturte honetan ez da kultur elkarte berririk sortu, baina dagoeneko existitzen diren elkarteekiko lankidetzari eutsi diogu: IRAGARRI elkarte, EHUTERPE unibertsitateko abesbatza-elkarte eta Antzerki Ikerketarako Unibertsitate Ikasgela kultura-elkarte (AUIT). Bestalde, The Vitorian Society elkarteak bere jarduera eta jarduna bertan behera utzi du.

7.1.4 Campusean unibertsitate-hedakuntzako jarduerak bultzatzea (kongresuak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak), laguntzak emateko deialdiaren bidez.

Ikasturte honetako unibertsitate-hedakuntzako deialdian 37 laguntza eman dira campusean biltzarrak, mintegiak, ikastaroak eta kultura-jarduerak antola daitezela. Batzuetan, 694 € jaso du bakoitzak (laguntza handiena 1.298 €-koa eta txikiena 300 €-koa izan dira). Guztira eskatutakoaren % 58 diruz laguntzea lortu da.

7.2. Unibertsitatearen irudia zabaltzeko jarduerak.

7.2.1 Iritzi-artikuluaren lehiaketarako deialdia egitea.

Aurten ezin izan da egin, eta datorren urteari begira hausnartzen ari gara nola lortu halako lehiaketetan UPV/EHUko kideen parte hartzea handitzea.

7.2.2 Ipuin laburren lehiaketaren deialdia egitea (gaztelaniaz eta euskaraz).

Aurreko atalean bezala, deialdi hau ere ezin izan da egin aurten, eta aipatutako hausnarketak lehiaketa honi ere eragiten dio.

7.2.3 CORTADA antolatzea, Gasteizko XXV. Film Laburren Jaialdia (EHUSKARABANDAren bideo-maratoiaren deialdia barne).

Jaialdia abenduaren 15etik 18ra bitartean egin da era presentzialean. 300 film labur inguru aurkeztu dira. Berriro ere, erakunde batzuen babesia izan dugu, hala nola Vitoria-Gasteizko Udalarena eta Vital Fundazioarena. Sariak banatzeko jaialdiaz gain bestelako jarduera paralelo batzuk ere izan ditu aurtengo 25. urteurrenak: batetik, orain 25 urte jatorrizko ideia izan zutenei omenaldia, eta, bestetik, "Moztekoak eta itsaskorrak" tailerra (abenduak 11), solasaldia Koldo Almandozekin (abenduak 15), Sara Zozayaren Kontzertua (abenduak 18) eta *Dardara* emanaldia (abenduak 18).

7.2.4 Unibertsitateen campus arteko MUSIVERSIKA IV. Musika Jaialdia antolatzea.

Pandemia dela eta, aurtengo lehiaketak gorabehera batzuk izan ditu. Edonola ere, finala maiatzaren 4an burutu da Jimmy Jazz aretoan. Musiversika - Unibertsitate Musikaren IV. lehiaketaren epaimahaiak Memphis taldeari eman dio lehenengo saria, Islabat izenekoari bigarrena, eta publikoaren saria Colapso musika-taldeak eraman du.

7.3. EHUkirola

7.3.1 Hiriko eta lurraldeko kirol-entitate eta -erakundeekin lankidetzak sustatzea eta horrela badagokio hitzarmenak sinatzea.

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Diputatuarekin eta Kirol Zuzendariarekin bilerak egin dira elkarren arteko lankidetzak zein izan daitezkeen arakatzeko.

Errektoreordetzak hitzarmen sendoa du Vitoria-Gasteizko Udalarekin kirol-arloan, baina aurtengoan hori zabaltzeko urratsak egin dira. EHUkirola programak bere kabuz antolatu ezin dituen jarduera batzuk eskaini ahal izateko, Udalaren "Kirol Bidean" ekimenean parte hartu du Errektoreordetzak, udako kanpainan 34 partaiderekin eta negukoan 29rekin.

7.3.2 Unibertsitateko kirol-txapelketak: Arabako campusean bakarkako zein taldeko kirolen lehiaketak antolatzea, eta campus artekoetan eta Euskadi eta Estatu mailakoetan parte hartzea.

Campuseko txapelketak itzuli dira pandemia aurreko egoerara. Hala ere, nabaria da bi urteko etenaldiak ohiko parte-hartzea murriztu duela. Edonola ere, 2021-22 ikasturteko gaienerako jarduerekin alderatuz gero, esan daiteke partaidetza ona izan dela. Txapelketak bi motatakoak dira: batetik, campus artekoak, Euskadi eta Espainiako Txapelketetarako baliagarriak direnak (Zabalki barne); eta, bestetik, partaidetza edo aisialdia sustatzen dutenak.

Aipatutako txapelketez gain, nazioarteko mailakoak (Europara mugatuak) ere badaude baina horietan oso murrizta da gure esku-hartzea. Txapelketetan izandako parte-hartzeari buruzko datuak honako taula honetan laburbilduta daude:



Jarduera	Antolatzailea	Partaide kopurua: guztira (E/G)
FISU Munduko Txapelketa 2021	FISU curling eta eski alpino txapelketak Lausanne- Suitza	2 (2/0)
Espainiako Txapelketa 2021	CSD (Madril)	3 (2/1)
Indoor Euskadiko Txapelketa 2021	Eusko Jaurlaritza (Mondragon Unib.)	7 (4/3)
1. lauhileko campus barneko txapelketak	Arabako Campuseko EHUkirola	762 (164/598)
2. lauhileko campus barneko txapelketak	Arabako Campuseko EHUkirola	211 (72/139)
Inter Campus Txapelketa 2022	EHUkirola (Bizkaian)	167 (72/95)
Euskadiko Txapelketa 2022	Eusko Jaurlaritza (Deustuko Unib.)	41 (35/6)
Zabalki, Nazioarteko Pilota Txapelketa	Nazioarteko unibertsitateak (UPNA)	14 (6/8)
Espainiako Txapelketa 2022	CSD (UCAM Murtzia)	59 (39/20)
Guztira		1226 (394/832)

Txapelketa horietaz gain, online eran jokatu den UPV/EHUko Xake Birtualeko Ziber Maratoia izan dugu. Guztira 32 ikaslek parte hartu dute Arabako campusean.

7.3.3 Kirol-prestakuntza eta -formazioaren inguruko jarduerak garatzea: kirol-eskolak (errugbia, pilota, boleibola, tenisa...), hitzaldiak eta zinema-emanaldiak, errendimendu handiko kirolarien tutoretza, Joko Garbia ekimena, eta Emakumea eta Kirola arloko jarduerak besteak beste.

Arabako Campuseko EHUkirola programak antolatuta eta kudeatuta, bestelako erakunde batzuekin lankidetzan edo hitzartuta, Kirol Eskolak burutu dira, baita itunpeko zentro hitzartuetako jarduerak ere. Kirol Eskoletan errugbia, tenisa, boleibola eta euskal pilota landu dira. Hitzarmenen bidez, 28 entitate edo enpresak eskaini dituzten zerbitzuak praktikatzeko aukera izan du Arabako campuseko unibertsitate-komunitateak. Partaidetza-datuak taula honetan azaltzen dira:

Jarduera	Antolatzailea	Partaide kopurua: guztira (E/G)
Itunpeko Gimnasio eta Kirol Zentroak	Arabako Campuseko EHUkirola	422 (279/143)
Kirol Eskolak: Errugbia	Arabako Campuseko EHUkirola	26 (10/16)
Kirol Eskolak: Tenisa	Arabako Campuseko EHUkirola	6 (4/2)
Kirol Eskolak: Boleibola	Arabako Campuseko EHUkirola	29 (12/17)
Kirol Eskolak: Esku Pilota	Arabako Campuseko EHUkirola	5 (5/0)
Guztira		488 (310/178)

Bestalde, hainbat erakunderekin batera lan egin da, hala nola Estadio Fundazioarekin, jarduera fisikoaren, osasunaren, kirolaren, jasangarritasunaren, desgaitasunaren, kirol-psikologiaren eta abarren kulturari buruzko solasaldiak, hitzaldiak eta zineforumeko saioak eskaini ahal izateko. Ikasturte honetan, guztira, 52 lagunek hartu dute parte.

EMMOA (Euskal Mendizaletasun Museoa) elkartearekin, Eusko Jaurlaritzako Larrialdietako Zuzendaritzarekin eta Euskal Mendizale Federazioarekin elkarlanean, "Unibertsitatea Mendian Gora" jardueraren barnean, hitzaldiak antolatu dira eta mendiko jardueretan autobabeserako ikastaroa egin da. Orotara, 78 pertsona gerturatu dira.

Azkenik, Vital Fundazioarekin Enpresen Lasterketan hartu dugu parte eta, Vital Fundazioarekin eta La Blanca Klubarekin, Arabako Herri Lasterketen Zirkuituan. Pertsona ugari parte hartu ez badute ere (11 lagunek), lankidetzara gisa oso emankorra gertatu da.

Arabako campuseko goi-mailako eta errendimendu handiko unibertsitate-kirolarientzako tutoretza-planari dagokionez, 35 akreditazio eman zaizkie programa honetan izena eman duten ikasleei (16 emakume eta 19 gizon).

EHUkirola Araba programako kirol-jardueretan parte hartzeagatik, 342 ikaslek jaso dute hautazko kredituak aitortu ahal izateko ziurtagiria.

7.3.4 EHUosasungarriari lotutako jarduerak garatzea (mintegiak, jardunaldiak, hitzaldiak eta jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak).

Arabako campuseko jarduera fisikoko programa orokorra edukiera mugatuekin burutu izan da lehen lauhilekoan eta era arruntetan, aldiz, bigarrenetan. Programa honen barruan yoga, Pilates, martxa nordikoa, GAP, HIIT, etab. eskaini dira.

Bestetik, pandemia-egoeraren testuinguruan Arabako campuseko unibertsitate-komunitate osoaren praktika fisikoak eta osasuna sustatzeko sortu ziren zenbait programak (izaera telematikoak zutenak) jarraitu egin dute ikasturte honetan ere: #mendierronka, #zuenerronka eta #gymvirtual. Etorkizunean tankera honetako jarduerari eutsi ote behar zaien hausnartu da, eta erabaki da oraingoz ez etetea, baina kostuak ahalik eta gehien doituz.

Aurreko jarduera guztietan izan dugun parte-hartzea honako taulan ikus daiteke laburbilduta:

Jarduera	Antolatzailea	Partaide kopurua: guztira (E/G)
Jarduera fisiko osasuntsuak: ikastaro gidatuak (Pilates, yoga, GAP...)	Arabako Campuseko EHUkirola	101 (78/23)
Jarduera fisiko osasuntsuak: martxa nordikoa.	Arabako Campuseko EHUkirola	48 (43/5)
Jard. fis. osasuntsu telematikoak: mendi erronka, zuen erronka.	Arabako Campuseko EHUkirola	49 (28/21)
Jard. fis. osasuntsu telematikoak: Gym Birtuala	EHUkirola	87 (73/14)
Guztira		285 (222/63)

Azkenik, aipatu behar da Campus Osasungarri eta Jasangarria ekimena abian jartzeko lehen urratsak eman direla. Diagnostikoa egin da, ideia-aren kontzeptuaren lehen zirriborroa prestatu da, eta 2022-23 ikasturterako lehen jarduerak zein izango diren erabaki da.